Guatemala'tik 1955 g.ko. Iraillaren 22'garenean

Iorar Andoni iaun agurgarriari
Ikastetxe Nagusiko Buruari
Salamanca'ra

Iaun agurgarria:

Euskeraz egiten dizut, euskalaria ta euskaltzale zeran ezkero. Arpegiz ez zaitut ezagun: zure zenbait edal-idazti irakurriak ditut, ordea, ta gogoz ta biotzez ezagun bide zaitut.

Emen argitarazten dugun Euzko-Gogoa euskal-aldizkaria itxaso-legorrez bidali dizugu; eskuetara zaizu, onezkero.

Egunotan beste idazti bat igorri dizut: "Sopokel'en antzerkiak": bertan dituzu Antigone, Elektere, Oidipu bakaldun eta Oidipu Kolono'n euskeraz. Idazti ori orain bederatzi urte argitarazi nun Mexiko'n. Darrik eta iruzkinik ez nizkion ezarri, Sopokel'en textua euskeraz eman baizik. Emen dauzkat ieki-piltzak, orra ezin bidalirik. Or'ko "zentzurak" galerazten baititu. Madrid'eko baimena bear omen dute. Euzko-Gogoa aldizkaria ere Donosti'ko zentzurak atzeman egiten digu. Egunotan beste euskal-idazti bat argitarazten ari dut Zarauz'ko Itxaropena irarkolean, "Bidalien Egiñak" deritza. Amaitutxe dute. Elizako "Nihil obstat" eta "Imprimatur" badu: baimen ori, ordea, ez omen da aski idaztia salgai iartzeko. Madrid'eko baimena bear omen da. Nik ez nekin orrelakorik.

Bear dan tokian baimen ori iritxi al izango didazu? Ta Donosti'ko zentzura bigun-erazi al dezakezu? Zure aldizkaria ez da nahasten iñongo alderdikezitan, ikusia dukezunez.

Lanbide guzion aldera nere eskarik kartsuenak iaso itzazu.

Adiskide duzun oni agindu nai dukezunez.

Zure menpeko

Zaitegi ta Plazaola'tar Iokin

Liceo Landibar
7 Avenida 5-41
Guatemala C.A.

P.S. Sopokel'en antzerkiak, II'garen idaztia ere argitaratzeko gerturik dizut, hiatz, Jarakin'go emaztekiak eta Piloktete, alegia. Oi ez bezelako oztopo oiek atzera eragiten didate, ordea. Emengo Ikastetxe Nagusian eladera irakasten ari ynatzaizu.

L.

VNiVERSiDAD
DE SALAMANCA
GREDOS.USAL.ES